txintxarri

2024-11-15 OSTIRALA 1.688. ZENBAKIA
TXINTXARRI ALDIZKARIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

Trebatu, gozatu eta oroitzeko Bertso Astea

Imanol Lizardiren omenezko ekimenari buelta bat eman eta hiru ekimeneko egitaraua ondu dute udaleko Euskara zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak, Earra! bertso eskolarekin elkarlanean. Hilaren 26tik 29ra egingo dituzte bertso solasaldia, poteoa eta gazteentzako sariketa / 8-9

Elkartasun oldea

Materiala bildu eta eramateaz gain, herritarrak lanean izan dira Valentzian / 4-5

TXINTXARRI

Askatasuna "harreman loteslea" dela aldarrikatu dute Memoriaren Eguneko ekitaldian / 3

'Larunbatak gustuko ditugulako' jaialdia ospatuko du Jalgune Elkarteak hilaren 30ean, kultur etxean / 4

Etxebizitza eskubideaz eta gai horren egoeraz gogoeta egin dute, borobilean / 6

Erregional mailako Ostadar SKT eta Texas Lasartearra CFren arteko derbian, urdin-beltzak garaile / 10

Ximon Villalobos Alvarez patinatzailea, Behobia-Donostia lasterketako podiumean / 11

Argazkian, Ola kalean dauden hondakinak biltzeko edukiontzietako batzuk. TXINTXARRI

Tasa eta zergak %3 igoko ditu udalak; hondakin bilketarena, %50

Datorren urteko ordenantza fiskalak onartu ditu udalbatzarrak eta baita Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berria ere. "Ez ditu soilik udalerriaren berehalako beharrak landuko; hurrengo 10-15 urteetarako bide orria ere izango da"

Txintxarri

Hilabete honetan bi gai garrantzitsu jorratu ditu udal korporazioak udalbatzarrean: Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) berria "behin betiko" onartzea eta datorren urterako ordenantza fiskalen proposamena. Biak ala biak onetsi egin dituzte, udaletxea koalizioan kudeatzen duten PSE-EEko nahiz EAJko zinegotzien botoekin. Oposizioko alderdiek, berriz, desadostasuna adierazi dute gai batekin zein bestearekin.

Udal gobernuaren izenean Agustin Valdivia alkateak (PSE-EE) eta Jon Antxordoki zinegotziak (EAJ) baloratu dute HAPO berria behin betiko onartu izana. "Ez ditu soilik udalerriaren berehalako beharrak landuko, hurrengo 10-15 urteetarako bide orria ere izango da". Norabide horretan, balioan jarri dute Babes Ofizialeko etxebizitzei emango dien "bultzada".

Valdiviak eta Antxordokik nabarmendu dutenez, plan horrek "auzo berri bat" eraikitzea ahalbidetuko du: asmoa dute Kotxerasen 900 etxebizitza egiteko. Horietatik 360 Babes Ofizialekoak izango direla aurreratu dute: erdiak, tasatuak, eta, beste erdiak, alokairukoak. "Garapen urbanistiko horrek herritarren eskari gero eta handiagoari eta aukera eskuragarriak emateko beharrari erantzuten die". Bestalde, zehaztu dute Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan alokairura bideratutako Babes Ofizialeko ehun etxebizitza eraikiko dituztela Oria Gain eremuan, "etxebizitza eta lan espazioa bateratuko dituen eredu aitzindari bat" sortuta. Azkenik, Maialen Chourraut kiroldegiaren gaur egungo lurretan 88 apartamentu eraikitzea aurreikusten dute, "gazteen emantzipazioa sustatzeko".

Udal gobernuko bi kide horiek esan dutenez, HAPO plan berriak udalerria hurrengo urteetan nola haziko den zehazten du: "Gure helburua da hazkundea jasangarria eta ordenatua izatea, 20.000 biztanleen langa gaindituta eta Euskadiko udalerrien artean erreferente bihurtuta". Zentzu horretan, zehaztu dute eredu horrek ez duela sustatuko "lurraren hedapen neurrigabe bat", baizik eta "mikrokirugia urbanistikoa" deritzona egingo dute herriko zenbait gunetan, "espazioak ahalik eta gehien aprobetxatzeko, ingurumenarekiko arreta bereziarekin".

EH Bilduk ez du udal gobernuaren irakurketa berbera egin eta planaren onarpenaren aurka botoa emateko arrazoiak azaldu ditu Esti Garmendia bozeramaileak: "Gure proposamenak ez ditugu ikusi aurkeztu diguzuen txostenean. Guretzat ezinbestekoak diren ardatz ugari ez dituzue jaso: udalak asko handitu beharko luke etxebizitzen parke publikoa alokairuen prezioak mugatu ahal izateko; herriak behar dituen ekipamendu premiei ez die behar bezala erantzuten, txikiak geratu direlako zenbat biztanle bizi garen kontuan izanda; eta libre dauden espazio publikoen kudeaketak hobea izan beharko lukeela uste dugu, esaterako, Kotxerasekoak". Bestalde, koalizio subiranistaren udal taldea kezkatuta dago HAPO berrian industriara gune zirenak "tertziario" izendatu dituelako udal gobernuak. "Lanpostu prekarioak areagotuko ditu horrek".

Batez beste, %3ko igoera

Datorren urterako ordenantza fiskalak ere berriki onartu ditu udal korporazioak. Gauzak horrela, batez beste %3ko igoera izango dute zerga eta tasek, hondakinen bilketarenak izan ezik; azken zerbitzu horrengatik %50 gehiago ordaindu beharko dute lasarteoriatarrek 2025ean.

Udal gobernuko kideek azaldu dute %3ko igoera orokorra aplikatzea ez dela izan "erabaki arin bat", testuinguru ekonomikoaren aurrean hartu beharreko "erantzun arduratsua" baizik. Hondakinen bilketaren tasaren harira argudiatu dute hartu beharreko neurria dela "zerbitzuaren kostu guztiak estaltzeko, Europako egungo araudiak eskatzen duen bezala". Bestalde, Agustin Valdivia alkateak jakinarazi du indarrean dauden onurak mantentzeaz gain, "hiru hobari berri" aplikatzen hasiko direla, "etxebizitzetan energia eraginkortasuna sustatzera" bideratuak direnak nagusiki.

Ordenantza fiskalen proposamena onartu arren, oposizioan ari diren Elkarrekin Podemos eta EH Bildu alderdiek euren desadostasuna adierazi dute udal gobernuak landutakoarekiko.

"Korrika eta presaka ibili da udal gobernua, beti bezala", adierazi du ELOPeko bozeramaile Miguel Angel Tolosak. "Ez dugu nahikoa denbora izan proposatutakoa aztertzeko, batez ere, hondakin bilketaren tasaren %50eko igoera". Horri lotuta, Tolosak kritikatu du udalak bidalitako informazio gutunean portzentaje zehatza jarri ez izana eta biderik bilatu ez izana igoera hori progresiboki ordaintzea aztertzeko, egoera zaurgarrienean dauden familiei begira batez ere. Gainera, uste du udalak diru gehiago (600.000-700.000 euro) bilduko duela datorren urtean eta ez zaio ongi iruditzen udal gobernuak diru hori zertara bideratuko duen ez proposatu izana oraindik.

Tolosak esandakoa entzun eta gero Valdiviak hartu du hitza, erantzuteko. "Esan duzun diru hori ingresatzen badugu, ikusiko dugu nola erabili datorren urteko aurrekontuak lantzen ditugunean". Eskutitzari dagokionean, erantzun dio "argi eta garbi" jakinarazten zuela igoeraren ehunekoa, nahiz eta gero atzera egin behar izan duen, EH Bilduko zinegotzi Asier Gorostegi zinegotziak gauza berberaz ohartarazi duenean.

"Kudeaketa nahiko eskasa izan dela iruditzen zaigu eta ezetz bozkatuko dugu", hasi du bere hitzartzea Gorostegik. "Badakigu egoera ez dela errazena baina udal gobernuak badu hori bideratzeko ardura, hori administrazioari egoztea ez zaigu oso bidezkoa iruditzen".

Azken urteetako eskari batzuk ere mahai gainean jarri dituzte EH Bildukoek, hala nola, herriko kultura elkarte eta eragileei "espazioak erabiltzeko erraztasunak" ematea, teknikariak behar dituztenean gastuak ordaintzetik salbuetsita. Halaber, ordenantza fiskalak bezalako gaiak lantzeko "lan mahai teknikoen beharra" nabarmendu dute. "Alderdi guztiok parte hartu behar dugu; badakigu desadostasunak izango ditugula eta zaila izango dela bidea, baina udala irabazten aterako dela uste dugu eta oso prest izango gara horretarako".

Valdiviak erantzun du gutuna aldatzeko agindua eman zuela erabaki zutenean hondakinak biltzeagatik %50 gehiago kobratuko zutela, baina bidean galdu zela agindu hori, antza denez. Bestalde, onartu du udal gobernuko kideak ere ez daudela gustura "ordenantza fiskalak onartzeko moduarekin", eta, norabide horretan, "ulermena" eskatu die oposizioko alderdiei: "Aurten kontu hartzailea ez dugu izan, apirilean diruzaina ere ez, eta %30eko gainkarga izan dugu bi alorretan. Lan nekaezina egin dugu dokumentua prestatzeko".

Askatasuna, "gizaki guztien onerako"

Udal korporazioko alderdi politiko guztietako kideek eta dozenaka lasarteoriatarrek (Herritar Foroko kideak tartean) parte hartu dute Memoriaren Eguneko ekitaldian. Askatasunaren parkean elkartu dira, 'Biharraren oroipena' eskulturaren altzoan

Txintxarri

Motibazio politikoko indarkeria kasuak gogoan izan zituzten Askatasunaren parkean, hilaren 10ean. Gotzon Huegun eskultore lasarteoriatarraren *Biharraren oroipena* eskulturaren inguruan bildu ziren udal korporazioko alderdi guztietako (PSE-EE, EH Bildu, EAJ, Elkarrekin Podemos eta PP) ordezkariak, Herritar Foroko kideak eta dozena bat pasatxo herritar. Komunikatu bat irakurri, Lourdes Iriondoren *Askatasuna zertarako* abestia kantatu eta larrosa zuriak jarri zituzten plakaren gaineko lorontzian zein eskultura osatzen duten hiru hilarri totemetako batean (EH Bilduko kideek egin zuten hori).

Herritar Foroko kideek irakurri zuten komunikatua. TXINTXARRI

Agustin Valdivia alkateak ireki zuen ekitaldia eta azaldu zuen berau antolatzeaz arduratu dela "bizikidetzaren eta bakearen alde" lanean ari den Herritar Foroa. Ondoren, bertako kide diren Mari Karmen Ormazabalek eta Ketxus Marcosek hitza hartu zuten komunikatu bat irakurtzeko euskaraz nahiz gaztelaniaz. "Libertatea ez da lotura guztietatik askatzea. Zertarako behar den askatasuna galdetzen duenean, lagun hurkoa leialki maitatzeko behar dela aldarrikatzen du Iriondok. Leialtasuna, ardura, konpromisoa, obligazioa. Beraz, harreman loteslea", adierazi zuten. Horrekin batera, Iriondoren 1968ko abesti hori oinarri hartu eta nabarmendu zuten askatasunak behar duela izan "maitatzeko eta gizaki guztien onerako, ez bengantzarako edo hiltzeko".

Amaitzeko, Memoriaren Eguneko ekitaldira bertaratutakoek minutu bateko isilunea egin zuten motibazio politikoko indarkeriaren biktima guztien oroimenez.

Amundarain, Valdivia eta Fernandez azokaren aurkezpen agerraldian. TXINTXARRI

Baserriko produktu fresko eta kalitatezkoen erakusleiho

Behemendik eta udalak Baserriko produktuen azoka deitu dute biharko, hilak 16, Okendo plazan

Txintxarri

Askotariko baserriko produktuak erosteko aukera ederra izango dute lasarteoriatarrek larunbat honetan, hilaren 16an. X. aldia izango du Behemendi Landa Garapenerako Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak elkarrekin antolatzen duten aurtengoa egitasmo horrek, eta "aukera paregabea" izango ekoizleek 0 kilometroko produkuak erakutsi eta saltzeko. Hala nabarmendu du Ainhoa Amundarain Behemendiko ordezkariak, eta, azpimarratu lehen sektoreak azken urteetan bizi duen krisiari aurre egiteko gisa horretako azokek duten garrantzia. Agustin Valdivi alkateak eta Soziekonomia batzordeburu Nurua Fernandezek gaineratu dute baratzeko "kalitatezko produktu freskoen salmenta zuzena gauzatzeko erakusleiho bikaina" dela azoka.

Arestian esan bezala, aurtengoa, herrian egingo duten hamargarrena izango da, eta hamabi ekoizlek parte hartuko dute. Horien guztien artean bi izango dira Lasarte-Oriako ekoizleak: Telleri baserria eta hazi ekologikoen ekoizlea. Horiekin batera izango dira baita ere, behi eta ardi gazta eskainiko duten postuak, edota, ogi eta gozogintza artisauarena, besteak beste. Goizeko 09:00etatik 14:00etara izango dira horiek guztiak Okendo plazan, beraz, bost orduko tartea eskainiko dute erosketak egiteko. Antolatzaileek herritarrak animatu dituzte Okendora bertaratu, azokara bisitatu eta bertan produktuak erostera.

Jalgunetarrek udal korporazioko ordezkari ugari izan dituzte lagun aurkezpenean. TXINTXARRI

Goi mailakoa izango da jaialdi-larunbata

Jalgune Elkarteak XVIII. Jaialdia aurrera eramango du hilaren 30ean, larunbatarekin, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Festa handia 18:00etan hasiko dela aurreratu dute antolatzaileek eta 30 urte bete dituen Semblante Rociero korua lagun izango dutela

Txintxarri

"Bizitzako data sinboliko bat" islatzen du aurten hemezortzigarren jaialdia aurrera eramateak, Jalgune Elkarteko kideek nabarmendu dutenez. "Burura datorkigun lehenengo ideia da momentu garrantzitsua dela, abiapuntu bihur daitekeena. Adin nagusitasuna lortu eta maila bat igaro dugula esan dezakegu". *Larunbatak gogoko ditugulako* leloa aukeratu dute aurten bizitza ospatzeko eta iragarri dute ekitaldia hilaren 30ean izango dela, larunbatarekin, kultur etxeko auditorioan, 18:00etatik aurrera. Joan nahi dutenek gonbidapenak eskuratu beharko dituzte kultur etxeko bertako leihatilan, ikuskizuna hasi aurretik.

Urte horietako guztietako jaialdien errepasoa egin dute jarraian. "Hasieratik, lehenengo pausotxo xume horietatik, argi izan genuen jalgunetarrak protagonista izango ziren zerbait egin nahi genuela: heldutasunera heltzeko, arduratzeko, arazoak konpontzeko, emozioak kudeatzeko...eta, batez ere, harreman sozialetan segurtasuna lortzeko". Bide horretan "zerumuga desberdinak" ireki eta "komunitate sarea" zabaldu dutela adierazi dute: "Jaialdiari esker, urte hauetan guztietan pertsona asko ezagutu ditugu eta baita artearen adierazpen mota ugari ere".

Helburuak, "bikain" beteta

Jaialdiz jaialdi "hurrengo fase berri baterako" prestatu dira jalgunetarrak, "aukeraz eta erantzukizunez betetako" etapa baterako. "Familia guztietan bezala, batzuetan zaila da jakitea noiz gauzak egiten utzi eta noiz baimena eman, baina, momentua iristen denean, haiengan kofiantza dugula erakutsi behar diegu. Esan eta egin!". Norabide horretan, helburuak "bikain" bete dituztela azpimarratu dute, nahiz eta jakitun diren heltze eta garatze prozesuan jarraitu behar dutela. Hori esanda, iragarri dute "prest" daudela adin nagusitasuna betetzeko, handi egiteko eta kategoriaz aldatzeko. "Laburbilduz, maila berri bat gainditu dugu. Aurten goi mailakoak gara!".

IKUSKIZUNERA JOAN NAHI DUTENEK GONBIDAPENAK HARTU BEHAR DITUZTE KULTUR ETXEAN

Azken urteetan bezala (2019tik ari gara Jalgunerekin elkarlanean), TXINTXARRI aldizkarikook oso-osorik grabatuko dugu *Larunbatak gustuko ditugulako* jaialdia eta *www.txintxarri.eus* atari digitalean argitaratuko dugu ondoren. Horrekin batera, ekimena iragartzeko kartela (diseinua eta argazkiak) ere jalgunetarrekin batera egin dugu; eskerrik asko lagunok, plazer hutsa izan da!

Kaxak bete eta bete ari dira Antonio Mercero areto sarreran. TXINTXARRI

Valentziako denboraleak kaltetuentzako laguntza, herritik

Jo eta su ari da lanean herriko boluntario talde bat. Bihar, hilak 16, txokolate jan solidarioa egingo dute

Txintxarri

Herriko boluntario talde bat jo eta su ari da lanean Valentziako denboraleak kaltetuei ahalik eta material gehien bidaltzeko asmoz, Antonio Mercero aretoan. Astearteetatik igandeetara joan daitezke herritarrak bertara. "Guk, eta, batez ere, valentziarrek asko eskertuko dizuete laguntza", nabarmendu du boluntarioetako bat den Marisa Iñigok. Aurreratu du bihar (hilak 16) txokolate jan solidario bat egingo dutela Donostiako Motards motorzale taldearekin elkarlanean, 10:00etatik 18:00etara, eta bilketa ez dutela eguerdian etengo.

Bilketa goiz batean bertaratu da TXINTXARRI aretora, egiten ari direnaren berri izateko. Eguerdiko hamabiak jotzear, bazebiltzan herritarrak Antonio Mercero aretoan: karro bete arropa eta material zekartzaten batzuek eta hori dena antolatu eta kaxetan sartzen ari ziren beste batzuk. Azken horietako bat da Marisa Iñigo, Valentziako denboraleak kaltetu dituenekiko elkartasun ekimena martxan jarri duen boluntario taldeko kideetako bat. "Ahal dugun guztian ari gara laguntzen, gutako bakoitzak dituen baliabideekin". Baliabide horiek dira denbora, elkartasuna, auzolana eta baita gasolina eta ibilgailuak ere, bildutako guztia kaltetutako eremura garraiatzeko.

Behar duten materiala kategoria hauetan sailkatu dute: lanerako, animalientzako, higienerako, jateko eta edateko, janzteko, gaixotasunak artatzeko edota jostatzeko. Horrez gain, hasi dira biltzen haurrak eramateko karro eta bestelako tresnak, linternak, pilak, LED argiak, motxilak eta erosketetarako karruak, baita janari beroa prestatzeko tresnak ere.

Lehenengo entrega, eginda

Hilaren 8tik 10eko asteburuan gidatu zuten Valentziaraino boluntarioek, lehenengo txandan bildutako guztia kaltetutako gunera eramateko. Bidaiak egiten jarraitzeko asmoa dute eta gastuen zati bat estaltzeko bitxiak jarri dituzte salgai Antonio Mercero areto sarreran.

Azkenik, ohartarazi dute materiala ez ezik boluntarioak ere behar dituztela. Lagundu nahi dutenak bilketa gunera joan daitezke (ordutegia, goiko taulan) edo *voluntarioslasarteoria@gmail.com* helbide elektronikora idatzi

Bilketa ordutegia

Astearteetatik igandeetara ari dira lanean. Goizetan, 11:00etatik 13:00etara (igandeetan, 12:00etatik 14:00etara), eta, arratsaldeetan, 17:00etatik 20:00etara (igande arratsaldeetan, itxita). Bihar, hilak 16, ordutegi jarraitua izango dute.

Gurutz Iturbe lau egunez eta etenik gabe aritu da suhiltzaile boluntario gisa lanean, Valentziako Massanassa herrian. G. ITURBE

"Dena txikituta topatu dugu, ezker-eskuin, gora-behera"

GURUTZ ITURBE URRETABIZKAIA GIPUZKOAKO SUHILTZAILEA

Boluntario lanetan aritu da Valentziako Massanassa herrian. Bertan topatu duena "izugarria" izan dela azaldu dio TXINTXARRI-ri, eta kontatu, zein lanetan aritu den

Maddi Zaldua

Bi aste pasatxo igaro dira tanta hotzaren ondorioz Valentziako (Herrialde Katalanak) hainbat herri urak hartu zituenetik. Sekulako hondamedia eragin du denboraleak –oraindik ere leku asko lokaztuta daude– , baina hori baino handiagoa izaten ari da, hala izan badaiteke, dozenaka eta dozenaka boluntarioren elkartasun olatua. Asko eta asko dira material eta produktu bilketak aurrera eramaten ari direnak, eta, badira ere, Valentziara esku bat botatzera joan direnak, horien artean, Gurutz Iturbe Urretabizkaia (Lasarte-Oria, 1979) herritarra; bere lekukotza biltzeko aukera izan du TXINTXARRI aldizkariak, informazio pieza hau osatzeko: "Orain arte inoiz ikusi dudan dimentsio horretako hondamendi baten ondorioak ikusi ditut aurrez aurre". Suhiltzailea da ogibidez, eta iragan astean, lau egunez, etenik gabe, lanean aritu da, boluntarioa, Massanassa herrian.

Nola sortu zitzaizun Valentziara boluntario joateko aukera?

Suhiltzaileok horrelako hondamendiak-eta gertatzen direnean, prest egoten gara zerbitzu gisa. Komunikabideen bitartez Valentzian jazotakoa latza zela ikusten genuen arren, ez gintuzten aktibatzen. Horren aurrean, zain egotea besterik ezin izan genuen egin, izan ere, norbera, zibil gisa joan daiteke, baina kasu horretan, guk suhiltzaile gisa eraman genezakeen tresneriarik eta baliabiderik gabe.

Larunbat arratsaldean –hondamendia gertatu eta lau egun geroago– dei bat jaso genuen, ziurrenik Valentziara joateko abisua jasoko genuela esanaz. Valentziako komunitateak oraindik horretarako baimenik ez zuela eman, baina berehala irits zitekeela esan ziguten, eta, badaezpada, prest egoteko. Gauerdian jaso genuen abisua; 07:00etan Valentziara gindoazela baieztatu ziguten. Gauzak horrela, ordu horretan suhiltzaile parkeetan bildu ginen, eta gutxi gorabehera gure eginbeharrak zeintzuk izango ziren jakinda, eraman beharreko material guztia bildu eta Valentziara abiatu ginen.

Nolako bidaia izan zen?

Gipuzkoako suhiltzaile parkeetatik abiatua, lehenengo geldialdia Arkauten, Gasteizen egin genuen. Han, Arabako eta Bizkaiko suhiltzaileekin batu ginen, eta Euskadiko suhiltzaile talde gisa jarraitu genuen bidaia. Konboi hori 09:30ean abiatu zen Gasteiztik, eta bederatzi ordu geroago, 19:00etan iritsi zen Valentziara. Luzea izan zen bidaia; atoiak eta garraiatzen ditugunean ezin dugu 90 kilometro orduko abiadura gainditu.

Hara iritsi, eta?

Alfajar izeneko herria izan zen gure lehen geldilekua. Bertako buruzagiek erabaki zuten aipatu leku horretan dagoen saltoki handi baten aparkalekua izango zela guk lehen gaua igarotzeko lekua. Gauzak horrela, DYAk ekarritako kanpamentua montatu, dena prestatu eta hor igaro genuen lehen gaua. Goiz oheratu ginen, bagenekielako goizean goiz martxan jarri beharko ginela.

Lehen gaua igarotzearekin batera iritsi zen lehen lan eguna?

Astelehena zen, hilak 4, eta 06:30erako prest geunden. Massanassa izeneko udalerri batera bidali gintuzten eta orduan ikusi ahal izan nuen, aurrez aurre, denboraleak eragindakoa. Gu izan ginen hondamendia gertatu zenetik hara iritsi zen lehenengo laguntza, erreskatze taldea.

Zer topatu zenuen bertan?

Komunikabideen bitartez-eta jasotzen genituen irudietan ikusten nuen gertatutakoa latza izan zela, baina, areago iruditu zitzaidan, zuzenean hara iristean. Suhiltzaile gisa egoera zail eta gogorren lekuko izatea eta bizitzea egokitu izan zait, baina Valentziakoak beste dimentsio bat du. Zaila egiten zait pentsatzea horrelako tamainako beste hondamendi baten lekuko izango naizenik. Han dena, ezker-eskuin, gora-behera txikituta topatu dugu.

Urak hartutako garajeak husteko lanetan aritu zara.

Bai. Pilatutako autoz, eta portalez betetako kale batera bidali gintuzten lanera. Bi garaje daude bertan; lur azpitik lehen solairuan horietako bat, eta bi azpitik bestea. Biak, noski, urak erabat hartuta zeuden.

Horiek husteko 11 suhiltzaileko talde bat osatu, eta lanerako beharko genuen material guztia eskura jarri genuen: ura xukatzeko bombak, argia sortzeko generadoreak, eta abar. Hori eginda, lanean hasi ginen; hiru egunez ura garajeetatik atera eta atera ibili ginen.

Zenbait zailtasun izan genituen, baina aparkaleku horietako ura husten gindoazen heinean, egoerak beste itxura bat hartu zuen.

Hustutako garaje horietan zeuden autoak ere banan-banan begiratu behar izan zenituzten.

Bai, hori da. Zorionez, ez batean, ez bestean ez genuen hildakorik topatu.

Zer jaso duzue bertakoengandik?

Asko estimatzen gintuzten, oso eskertuta agertu dira uneoro guk egindakoarekin. Pentsa, hondamendia gertatu zenetik, gu iritsi arte lauzpabost egun egon ziren inolako laguntzarik gabe. Horietako bakoitzak bere gisara, eta eskura zituen baliabideekin egin zuen ahal izan zuena.

Gu lanean aritutako kalean adineko jendea bizi da gehien bat. Oso zaintzaile jokatu dute gurekin; etengabe esaten ziguten eskatzeko behar genuena, kafetxo bat edo jatekoa adibidez.

Zer ekarri duzu Lasarte-Oriara?

Nik egin ahal izan dudana egin izana. Hori, ordea, huskeria bat baino ez dela izan pentsatzen dut tarteka, oraindik ere lohiak hartuta jarraitzen dutelako kaleek eta lan asko-asko dagoelako egiteke. Argi dago, ordea, egin dudan apur hori ere baliagarria izan dela. Hainbestekoa da txikizioa... horri buelta emateko egin beharreko lana izugarria da oraindik.

Hori hala izanik, uste duzu berriz ere hara joateko deia jasoko duzuela?

Bai, hala izan da. Asteon joan dira beste lankide batzuk. Nik, ordea, lankide batek joateko nahia zuenez, bera Valentziara joatea eta ni hemen bere lanak egiten geratzea adostu dugu.

Elkarrizketa, osorik, *www.txintxarri.eus*-en

Etxebizitza, gero eta garestiagoa den eskubidea

Ikasturteko hirugarren mahai ingurua aurrera eraman du Borobilean Elkarteak: Errenteriako alkate Aizpea Otaegi, Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta eta Xuar Agirre gazte lasarteoriatarra gonbidatu ditu Oriarte Landaberrira, puri-purian dagoen gai horri buruz hitz egitera

Iñigo Gonzalez Sarobe

Borobilean Elkarteko kide eta atzoko hizlarietako bat izan zen Xuar Agirrek sarreran bota dituen datuak izan ziren entzun eta eserlekutik ziztu bizian altxatzeko modukoak, aretotik azkar ospa egiteko. Inork ez zuen hori egin eta eskerrak, bi ordu oso interesgarri eta emankorrak izan zirelako, puri-purian dagoen gaietako bati buruz: etxebizitza. Kontu hori kalean dagoela nabaritu zen, mahai inguru honetarako ere hasi aurretik jarritako baino aulki gehiago ekarri behar izan zituztelako.

Zeintzuk izan diren Agirrek aurkezpenen txandan aipatu dituen datu horiek? Begira: Lasarte-Oriari dagokionez, etxe bat merkatu librean erosteagatik 294.884 euro pagatu behar dituela herritar batek batez beste, eta, baten batek pentsatua badu alokatzea, kasik hobe duela etsitzea, Idealista atarian iragarki bakarra zegoelako saioaren hasiera orduan: hilabetero 1.100 euro eskatzen dituzte Beko Errota kaleko 2. zenbakian dagoen bi logelako apartamentu batengatik.

Ahoan bilorik gabe hitz egin zuten Errenteriako eta Usurbilgo alkateek: etxebizitza larrialdiaren garaian bizi gara eta egoera oso kezkagarria da. Edonola ere, horrek ez du esan nahi etsita eta ezer egiten ari ez direnik: Oarsoaldeko udalerri hori eremu tentsionatu izendatu izanaz aritu zen Otaegi; Solabarrieta, bestalde, gure eskualde berean (Buruntzaldea) eta mugakide dugun herriko proiektu aitzindari batez aritu zen, belaunaldi desberdinak komunitate berean bildu dituen Txirikorda izeneko egitasmoaz, hain zuzen ere. Ondoren, Agirrek etxebizitza kooperatiboak izan zituen hizpide; horiei buruzkoa izan da bere Gradu Amaierako Lana, unibertsitatekoa. Aretoa bete zutenek interesez jarraitu zituzten hiruen gogoetak eta amaiera aldera aukera izan zuten gonbidatuei galderak egin eta hitz egiteko.

Ikasturteko hirugarren saioa ere aretoa bete zuten Borobileanekoek. TXINTXARRI

Errenteria izan da Etxebizitza Merkatu Eremu Tentsionatu izendatua izan den Hego Euskal Herriko lehen udalerria (urriaren 2an), arrazoi hauengatik: bertako biztanleek diru sarreren %30 baino gehiago erabili behar dutelako hileroko hipoteka edo alokairua ordaintzeko; etxe bat alokatzeko prezioa Kontsumo Prezioaren Indizea baino gehiago hazi delako azken bost urteetan. Hori "aurrerapauso handia" den arren, honakoaz ohartarazi du Errenteriako alkateak: "Beldur naiz ez ote garen espektatiba handiegiak sortzen ari gai horrekin; neurriratu egin behar ditugu, izendapenak berak ez duelako etxebizitzaren gaur egungo egoera irauliko". Estatus hori duten udalerriek eskumena dute eragiteko, adibidez, alokairuaren prezioaren igoerak izozten; hori bai, izoztuko lituzketen etorkizuneko garestitze horiek gaur egungo merkatu libreko prezioen araberakoak lirateke. "Errenterian ez dugu hilero 850 euro baino merkeagoa den alokairurik".

Belaunaldiak txirikordatzen

Eremu tentsionatuaren aferari heldu zion Solabarrietak bere hitzartzeari ekiteko. Jakinarazi zuen "etxerako lanak" egiten ari direla eta urtarrileko ohiko bilkurara eraman nahi dutela gaia. Horren ostean hasi zen Txirikorda egitasmoaz hizketan, maiatzean inauguratu zuten belaunaldi desberdinentzako etxebizitza komunitarioez. Proiektuaren izenak berak dioen moduan, udalaren helburua zen 18 eta 30 urteko gazteak 65 urtetik gorako adinekoekin (bakarrik bizi direnak) "txirikordatzea, elkartzea, lotzea". Txirikorda gauzatzeko "orri zuri batetik" abiatu zirela gogoratu zuen alkateak eta bidean nahi baino oztopo gehiago (garapen urbanistiko hori kudeatu duen enpresa kontratatzailearen aldetik, batez ere) izanagatik, gauzatzea lortu zutela eta "oso arrakastatsua" izaten ari dela.

Agirrek etxebizitza kolaboratiboei buruzko Gradu Amaierako Lana egin du, unibertsitaterako. Adiera hori "neologismo bat" dela azaldu zuen eta Europa iparraldean duela jatorria, 70. hamarkadan; *cohousing* deitzen zaio. "Orain iristen ari da Euskal Herrira". Norabide horretan, Bizkaiko landa eremuan dauden hiru proiektu aztertu ditu: Ametxe, Ankurkulu eta Boronabilla. Horien sustatzaileak elkarrizketatu ditu eta konturatu da "alternatiba erreala" dela etxebizitza kolaboratiboena, "gaur egungo logika neoliberalaren ezaugarri ezkorren aurrean".

NEURE KABUZ

GORKA ALVAREZ

Behobiatik Donostiara korrika joatearen zirrara

Aurten ere iritsi da korrikalarion urteroko zita nagusienetariko bat. Korrikalariona diot, multzo horretan sartzeko baimena ematen badidazue. Ez nator gaurkoan 20 km baina gehiago izan direla eta kexu, ez nator bidean bizi izaten ditugun emozio ugarien harira idaztera. Azkenaldian, lasterketa herrikoien inguruan entzuten ari naizen hainbat astakeriaren inguruan iritzia plazaratzera nator.

Lasterketek aspaldi herrikoi izateari utzi ziotela, lasterka ibiltzea osasunarentzat oso kaltegarria dela, antolakuntzak negozioa bilatze aldera soilik antolatzen dituztela ekitaldi hauek, izen emateak oso garestiak direla, eta abar luze baten inguruan ari naiz. Hari mutur bati tiraka, ehundaka hitz askatzeko gaitasuna dutenen etengabeko jario horretaz, egiatik tarteka zerbait izan dezaketen horiena, baina sakontzean, gezurretik gehiago dutenaren itxura hartzen duten iritzi horietaz ari naiz.

Zuzena eta garbia izate aldera, aisialdia gizarte osasuntsu baten ohitura errotu moduan ulertu nahian, ez diot inongo heldulekurik ikusten, izan korrika ekitaldi herrikoi baten, edota beste edonolako kirol ekitaldi amateur bati, harriak botatzeko batzuek hartu duten ohitura trakets horri. Kirolean, festa kontzeptu bezala ulertuta ere, irabaztekoak gehiago dira galtzekoak baino, ikusita parez pare dugun festa eredua, astebukaeraro ikus dezakeguna eta argi uzten diguna alderaketan zein den errotu beharko genukeena. Guztia, ordea, ez da ez beltza ezta zuria ere. Kirol ekitaldi parte hartzaile hauek, gazteak beste festa eredu batetara hurbiltzea ekartzen digutelakoan nago eta askorentzat inoiz bizi gabeko lehen esperientzietara gerturatzea ere badakar. Asteetako eta hilabeteetako kirol jarduera bermatuz, froga edota ekitaldi zehatz batean parte hartzea, aitzakia bihurtuta kirolean jarduteko. Modu honetan, kirol ohitura osasuntsuak sustatzen ditugu, urtean zehar epe motz edo ertain batean behinik behin, eta horrek beste aisialdi eredu batzuekiko alderaketan, izugarrizko onurak dakartzala zalantzarik ez dago, gizarte aktibo eta parte hartzaile baten oinarrian ezinbestekoa.

Lasterketa hauek kontsumismoarekin erlazionatzen dituenik ere badago noski, baina nire ustetan gure inguruan ez da eredu nagusia bihurtu momentuz; zorionez. Gure inguruko ereduek zerikusi handiagoa daukate kirol elkarte desberdinek euren biziraupena ziurtatzeko bultzada jaso eta herri zein auzo mailan egiten dituzten eragile lan horietan bidea egiten jarrai dezaten, jasotako laguntza eta elkartasunetik.

Gizarte osasuntsua eta aktiboa nahi badugu, erronka handia daukagu benetan, horretan sinesten duten eragile, elkarte eta pertsonen zaintzan eta laguntzan esku bat botatzearekin eta ez erabat deitoragarriak diren aurkako jarrera anitz horiek indartzearekin. Inori min ematen ez dioten ekitaldi hauen aurka, etxeko besaulkietatik botatako hitz jario hutsal eta zentzugabeekin parte hartzea murriztu eta jendea kikiltzeko asmotan aritzen diren horienganako nire gaitzespen osoa agertzen dut.

Korrika, lasterka, antxintxika edo oinez; bakoitzak nahi eran, utz ditzagun bide bazterrean oztopo moduan erabili jarri nahi dizkiguten harri horiek eta altxa dezagun ipurdia etxeko egongelatik, kirola indartuz, bultzatuz eta sustatuz. Bide batez, gizarte aktibo eta osasuntsuago baterantz bidaiatzera lagunduko baikaitu.

BLACK FRIDAY

2MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

multiópticas

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15.
LASARTE-ORIA

eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiopticas.com

R.P.S. 91/20

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Jakin-mina piztu zuen dokumentalaren emanaldiak. TXINTXARRI

Maria Josefa Sansberro Etxeberriaren berri izan dute

Nazien kontzentrazio esparruetara deportatutako euskaldunen berri izan dute 'Ezkutuan zegoen historia'-n

Txintxarri

Islada Ezkutatuak taldeak antolatuta, ezkutuan zegoen historia dokumentala ikusteko aukera izan zuten hilaren 7an, osteguna-rekin, lasarteoritarrek. Maria Josefa Sansberro Etxeberriaren bizitza oinarri hartuta, Errenteriako La ilusion kultur taldeak egindako ikerketa lanaren emaitza da hori. Ikus-entzuleen artean, gainera, egon dira nazien kotzentrazio eremuetara eramandako euskal herritar batzuen senideak ere.

Nazien kontzentrazio esparruetara deportatutako euskaldunen gaia jorratu eta erakusten du La ilusion kultur taldeak landutako ikus-entzunezkoak: Maria Josefa Sanzberro Etxeberriaren bizitza zehazki. Aipatu dokumentalaren testuigurua osatzeko, hiru adituren testigantzak bildu dituzte: Carlos Hernandez kazetariarena; Juan Carlos Jimenez de Aberastury historialariarena; eta, Marta Simo soziologoarena.

Bertaratu zirenek jakin ahal izan zuten Bigarren Mundu Gerran, frantziar erresistentziarekin konprometitutako emakumea izan zela Sansberro, baita horrek bere bizitza nola baldintzatu zuen ere.

TXINTXARRI

Funtsezkoak bezain ezezagunak

Spasmo Teatro konpainiak 'Xomorrotxoak' antzezlanaren emanaldia egin du kultur etxeko auditorioan. Aretoaren behealdea bete duten familiek intsektuei buruzko kontu interesgarri ugari ezagutu dituzte, antzezleen ateraldiekin gozatu bitartean. Izaki horiek zeinen garrantzitsuak diren ikasi dute: "Intsektuek egiten duten lanagatik eta balitz, ia ezinezkoa litzateke bizitza egotea Lurra planetan".

Ezker-eskuin: Lierni Rekondo, Joxe Krutz Labaka, Jon Antxordoki eta Arkaitz Illarramendi. TXINTXARRI

Trebatu, gozatu eta gogoratzeko plaza

Hilaren 26tik 29ra Bertso Astea aurrera eramango dute udalerrian. Ekimen nagusia I. Imanol Lizardi Sariketa izango da eta hori girotu eta indartuko dute bertso solasaldiak eta bertso poteoak. Ekimen guztiak doakoak eta irekiak izango dira

Txintxarri

Eragile eta erakundeen arteko lankidetzatik ekimen interesgarriak atera izan dira. Horren adibide da Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak duten hitzarmenaren baitako Bertso Astea, hilaren 26tik 29ra aurrera eramango dutena. Bertako ekimenetan parte hartzen dutenek plaza ederra izango dute bertsolaritzarekin trebatu, gozatu eta gogoratzeko. Earra! bertso eskolako lagunekin batera antolatu dute egitaraua, hiru jarduera hauek izango dituena: eskarmentua duten bertsolariek hasiberriak trebatzeko bertso solasaldia; herriaren erdigunea girotuko duen bertso poteoa; eta I. Imanol Lizardi Sariketa, jarduera nagusia, 18 eta 25 urte arteko bertsolarientzako lehiaketa izateaz gain udalerriko euskararen eta kulturaren alde horrenbeste lan egindako herritarra oroitzeko izango dena. Bestela esanda, aurreko urteetan udaberrian egiten zuten bertso saioa udazkenera ekartzea erabaki dute.

Bertso solasaldia izango da aurreneko ekimena eta parte hartzen dutenek eskarmentu handia duten eta plaza ugaritan aritu diren Ane Labaka herritarraren eta Beñat Gaztelumendiren aholkuak jasoko dituzte, bertsolaritzako atalen gainekoak: neurriak, errimak, doinuak, bertsoen egitura, gorputzaren adierazpena, eta abar. Bi egun geroago aukera bikaina izango dute aholkuak jaso bitartean trebatzen direnek, ikasitakoa jendaurrean erakusteko. Izan ere, Earra! eskolakoek bertso poteoa egingo dute erdigunean barrena, trikitilarien laguntzarekin.

Ekimen nagusia, sariketa

Bertso Astea itxiko du I. Imanol Lizardi sariketak ostiral horretan, hilak 29. Antxordoki eta Illarramendiren hitzetan, hori izango da egitarauko "ekimen nagusia" eta helburu hauek izango ditu: Imanol Lizardiren oroitza bizirik mantentzea, bertsozaletasuna sustatzea udalerrian nahiz eskualdean, bertsolari gazteei plaza batean aritzeko aukera ematea, herriko gazteei euskaraz gozatzeko aukera ematea eta bertso eskoletako parte hartzea bultzatzea.

Antolatzaileek herritarrak gonbidatu dituzte Bertso Astean parte hartzera.

Bertso Asteko hiru jarduerak, laburrean

- **Bertso solasaldia.** Hilaren 26an, 18:00etan, osasun zentroko bigarren solairuan.
- **Bertso-poteoa.** Hilaren 28an, 18:30etik aurrera, erdigunean barrena.
- **Imanol Lizardi Sariketa.** Hilaren 29an, 18:00etan hasita, Mirentxun.

Imanol Lizardik egindakoarekin jarraitzeko, Bertso Astea

Trebatu, gozatu eta oroitzeko ekimen sorta prestatu dituzte Lasarte-Oriako Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkarteak, Earra! bertso eskolarekin elkarlanean: bertso solasaldia, bertso poteoa eta I. Imanol Lizardi Sariketa. Azken hori izango da jarduera nagusia eta hori girotu eta indartuko dute aurreko biek.

BERTSO ASTEA
LASARTE-ORIA

AZAROAK 26

18:00 ANBULATORIO ONDOKO ERAIKINAREN BIGARREN SOLAIRUAN BERTSO SOLASALDIA

Eskarmentua duten eta plaza askotan ibilitakoak diren Ane Labaka herritarrak eta Beñat Gaztelumendik modalitate horretan hasiberriak direnak trebatuko dituzte, bertsolaritzaren atal desberdinei buruzko aholkuak emanda: neurria, errimak, doinuak, bertsoaren egitura, gorputz adierazpena, aholku orokorrak, oholtza gainean nola egon, eta abar.

Saioan zehar ariketa desberdinak egingo dituzte (gazteak gaika, gazteak eta eskarmentua duen bertsolaria gaika/puntuka, gorputz adierazpena...) eta Mailu Arrutik aurkeztuko du, ekitaldiari umore ukitua emanda. Herritar ororentzako saio irekia izango da.

AZAROAK 28

18:30 ERDIGUNEAN BERTSO-POTEOA

Bertso Astearekin jarraitzeko, trikitilariekin batera kaleak girotuko dituen bertso poteoa izango da bigarren jarduera, Earra! bertso eskolako kideen eskutik eta aukera paregabea izango dute aurreko egunetan jasotako aholkuekin jendaurrean kantari aritzeko. Trikitilarien laguntza izango dute.

AZAROAK 29

18:00 MIRENTXUN

IMANOL LIZARDI

BERTSOLARI GAZTEENTZAKO LEHENENGO SARIKETA

Herritar ororentzako saio irekia eta doakoa izango da, Bertso Asteko jarduera nagusia, Imanol Lizardi herritarra zenaren omenez. Pertsona horren inplikazioa ezinbestekoa izan da udalerrian euskara eta euskal kultura bultzatzerakoan.

Bertan 18 eta 25 urte bitarteko sei gaztek parte hartuko dute: Maddi Lasa eta Aratz Arzelus gipuzkoarrek, Iraide Onaindia eta Hegoi Amabizka arabarrek, Kelmene Abaitua bizkaitarrak eta Kattalin Lizarraga nafarrak. Zerrenda osatzerakoan "generoa eta lurraldetasuna" kontuan izan dituztela nabarmendu dute antolatzaileek. Lehen fasean seiek parte hartuko dute eta bi sailkatuko dira buruz burukora. Irabazleak ordainsaria (400€) eta zapia jasoko ditu, eta bigarren sailkatuak ordainsaria (200€). Bertsolari guztiei oroigarri bana emango diete.

Ostadarrek eraman du Erregional mailako derbia

Ostadar SKT eta Texas Lasartearra CF taldeek norgehiagoka jokatu dute multzoko faseko lehen itzuliari amaiera emateko. Bigarren zatiko lehen minutuetan urdin-beltzek sartutako bi golek hankaz gora jarri dute Texas Lasartearraren jokoa

Txintxarri

Erregional I. Mailako Ostadar SKT eta Texas Lasartearra CF taldeek derbia jokatuz eman zioten amaiera fase erregularreko lehen itzuliari. 4. multzoko taula erdialdean daude herriko ordezkariak; Texas Lasartearra 4. postuan eta Ostadar 5. postuan. Neurketa baino lehen lau puntuko aldea zegoen talde zuri-urdinaren alde. Hilaren 9an, Michelin kirol gunean azken txistua jotzean, ordea, Ostadar SKTk puntu bakarrera murriztu zuen errenta; 2-5 irabazi zuen partida.

Jagoba Mendizabal Imaz Ostadar SKTko entrenatzailea gustura agertu da taldea egindako lanarekin: "Hasieratik ondo ibili ginen. Ate aurrean asmatu genuen. Baina Texas Lasartearrak aukerak ongi baliatu zituen golak egiteko".

Texas Lasartearrak, berriz, ez zuen bere egun onena izan. Erregionalen entrenatzaile Gorka Brit Gallegok onartu moduan, "denboraldiko partidarik txarrena izan da. Ez dugu gure onena, gure maila erakutsi. Ostadarrek merezimenduz irabazi zuen neurketa eta zoriontzea besterik ez da geratzen".

Ostadar SKTko jokalariak, neurketako eraso batean. TXINTXARRI

Mendizabalek azaldutakoaren arabera erritmo handiko neurketa espero zuen. Eta aurreikuspenak ez zuen huts egin, lehen zatia borrokatua izan zen. Hala ere, talde urdin-beltza hobeto sartu zen lehian eta aukera gehiago sortu zituen. Saiakerek saria izan zuten. Ander Marcos Ugartek kornerra jaurti eta zuzenean atera sartuta aurreratu zen Ostadarreko erregionala.

Zazpi minutu bakarrik iraun zion poztasunak Mendizabalek zuzentzen duen taldeari. Huts baten ondorioz, talde zuri-urdinak berdinketa egin zuen Gorka Dominguez Garciaren eskutik.

Atsedenaldira banako berdinketarekin iritsi eta bigarren zatia indartsu hasi zuen Ostadarrek. Lehen minutuetan erritmoa ezarri eta beste bi gol eskuratu zituen; Beñat Negredo Muñoa eta Endika Izagirre Inza izan ziren golegileak.

Texas Lasartearrak ezin izan zion aurre egin egoerari eta pixkanaka animoak eta indarrak galtzen joan zen. "Bigarren zatiko lehen bost minutuetan, oraindik hotz ginela etorri ziren Ostadarren bi golak eta kosta egin zitzaigun egoera horri itzulia ematea", nabarmendu du Texas Lasartearrako arduradunak.

Hori ikusita, talde urdin-beltzako jokalariak baloia gehiago konbinatzen saiatu ziren. Erasoan "komodo eta disfrutatzen" jokatzen ari zirela, defentsan huts egin eta Fernando Martin Rodriguezek Texas Lasartearraren bigarren gola egin zuen.

Hala ere, Ostadarrek bere jokoa egiten jarraitu eta aukera askoren ostean, Ivan Gomez Rodriguezek laugarrenez bidali zuen baloia sarera.

Neurketako azken minutuetan biribildu zuen Mendizabalen taldeak neurketa Eneko Marcos Ugarteren eskutik.

Bigarren itzulia dute orain aurretik erregional mailako bi taldeek. Multzoko gainerako aurkarien aurka jokatu behar duten arren, Texas Lasartearrako entrenatzaile Britek lanean jarraitu eta bigarren itzulian emaitza aldeko izatea espero duela onartu du.

Lehen sailkatuen aurka

Hurrengo jardunaldian, neurketa gogorrak izango dituzte herriko erregional taldeek etxean; multzoko lehen bi postuetan dauden Trintxerpe eta Urnieta izango dituzte aurrez aurre.

Texas Lasartearrak sailkapen buru den Trintxerperi egin beharko dio aurre; Ostadarrek, berriz, urnietarren aurka jokatuko du.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Ostadar SKT - Beti Gazte KJKE
Igandea. 12:55. Michelin kirol gunean.

GORENGO MAILA

Roteta CD - Ostadar SKT
Larunbata. 17:30. Martutene, Donostian.

ERREGIONAL I. MAILA

Ostadar SKT - Urnieta CD
Larunbata. 16:30. Michelin kirol gunean.

Texas Lasartearra CF - Trintxerpe CD
Igandea. 16:35. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO J. M.

Danena KE - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Elbarrena, Zizurkilen

JUBENILEN GORENGO MAILA

Ostadar SKT - Aloña Mendi KE
Larunbata. 19:30. Zubieta, Donostian.

JUBENILEN I. MAILA

Texas Lasart. CF B - Ast. Mundarro FKE B
Larunbata. 18:30. Michelin kirol gunean.

Euskalduna A. SD B - Texas Lasart. CF
Larunbata. 18:30. Ubitarte, Andoainen.

Arrupe Chaminade FCDDF C - Ostadar SKT
Igandea. 13:20. Felix Marin, Donostian.

OHOREZKO K. M.

Ostadar SKT - Orioko FT
Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.

KADETEEN I. MAILA

Ostadar SKT (neskak) - Usurbil FT B
Larunbata. 13:05. Michelin kirol gunean.

Texas Lasartearra CF - Arrupe Chaminade FCDDF F
Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.

Ostadar SKT B - Asti. Mundarro FKE B
Igandea. 14:50. Michelin kirol gunean.

Euskalduna A. SD B - Ostadar SKT C
Larunbata. 12:30. Ubitarte, Andoainen.

ARETO-FUTBOLA

I. MAILA

Laskorain KE - Eguzki Arkupe Rehab.
Larunbata. 16:30. Usabal kirol., Tolosan.

III. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Altza La Terraza CD
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA

Eguzki Bod. Ayesa - Lauburu KE Ibarra A
Larunbata. 13:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETEEN MAILA

Eguzki Goxokis Goxuak - Lauburu KE Ibarra A
Igandea. 11:30. Michelin kirol guneko pil.

SASKIBALOIA

II. MAILA

Ostadar SKT - ZAST Oak
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Tecnun - Ostadar SKT
Igandea. 16:00. Tecnun, Donostian.

J. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Ostadar SKT - Biko Asesoria Oiarso SKT
Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.

J. PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Hemen Garbiketak Eskoriatza KE
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

K. ERRENDIMENDUA URREA

Easo Basket Gamma - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Altzako kirol., Donostian.

K. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Ipartronic Oiarso SKT - Ostadar SKT
Larunbata. 09:00. Don Bosco, Errenterian.

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Bera Bera
Igandea. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Univ. de Navarra - Ostadar SKT
Igandea. 11:30. UNAV, Iruñea, Nafarroan.

KADETE MAILA, AURRETIKO FASEA

Ostadar SKT A - Usurbil
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

Hernani KE 2 - Ostadar SKT B
Larunbata. 12:00. Udal kirol., Hernanin.

INFANTIL MAILA, AURRETIKO FASEA

Ostadar SKT - Lizardi Bi
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

ERRENDIMENDU TX., INF. 1. MAILA

Intza (Jauregi) - Tolosa
Ostirala. 18:15. (3. partida) Loidibarren pil.

ERRENDIMENDU TX., INF. 2. MAILA

Intza KE (Lasa) - Alde Zaharra
Ostirala. 18:15. (1. partida) Loidibarren pil..

Intza (Lopez) - Añorga
Ostirala. 18:15 (2. partida) Loidibarren pil.

Hernani - Intza KE (Maiz)
Larunbata. 15:30 (2. partida) Udal pil, Hernanin.

ERRENDIMENDU TX., ALE 1. MAILA

Ilunpe - Intza KE (Jauregi)
Larunbata. 16:00. (2. partida) Txiki pil., Azpeitian.

IGERIKETA

NEGUKO LIGA

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligako bigarren jardunaldia jokatuko dute.
Larunbata. 16:00. Udal kirol., Hernanin.

ERRUGBIA

EUSKAL LIGA, I. MAILA

Getxo - Gipuzkoa Sortzen
Larunbata. 16:30. Fadura, Getxo, Bizkaian.

18 URTEZ AZPIKOA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Hernani CRE
Larunbata. 16:30. Asti, Zarautzen.

16 URTEZ AZPIKOA

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT - Hernani CRE
Larunbata. 15:00. Asti, Zarautzen.

10 ETA 12 URTEZ AZPIKOA

Beltzak Errugbi Eskolako gaztetxoek topaketa izango dute.
Igandea. 10:30. Asti, Zarautzen.

XAKEA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Taula Xake Klubeko kideek eta Lasarte-Oriako xake jokalariek maila ezberdinetako Gipuzkoako txapelketako jardunaldia lehiatuko dute.
Larunbata eta igandea. Eibar / Irun.

SURFA

GAZTE ZIRKUITUA

Hodei Murgiondo herritarrak Surf Gazte Zirkuituko jardunaldian parte hartuko du.
Larunbata. Zierbana, Bizkaian.

Villalobos, (gorriz) podiumean; Julen Ormazabal, Jon Presa eta Maite Salazar herritarrak, helmugara iristen. BEHOBIA-SAN SEBASTIAN/T. VALLES

Villalobos herritarra, bigarren patinatzailea

Behobia-Donostia lasterketako 59 aldia jokatu da hilaren 10ean. Lasarte-Oriako 136 korrikalari eta patinatzaile izan dira proban. Ximon Villalobos Alvarez rollerrak lortu du posturik onena; esprinta lehiatu ostean, podiumeko bigarren mailara igo da

Txintxarri

Behobia eta Donostia arteko kilometroak jendez gainezka izan ziren hilaren 10ean. Lurraldeko probarik ezagun eta jendetsuena lehiatu zen, Behobia-Donostia. 25.182 parte hartzaile izan ziren Behobiako irteera gunean. Patinatzaile, korrikalari edo lasterkari egokitu ibilbidea osatu zutenen zenbakia 24.970 lehiakiderena izan zen; horietatik 136 lasarteoriatarrak izan ziren.

Irteera puntutik atera eta helmugara iristen lehenetarikoak patinatzaileak izan ziren. Maila horretan Lasarte-Oriako hiru ordezkari izan genituen lehian, hirurak gizonezko mailan eta horietako bat, Tolosako Irristaka taldeko Ximon Villalobos Alvarez lehen sailkatuen artean izan zen.

Lasterketa ederra egin zuen gazteak eta espero ez arren podiumera igotzea lortu zuen: "Banekien forma onean nentorrela lasterketa honi begira, baina baziren beste hamar bat aurkari ziren podiumera sartzeko faborito izan zitezkeenak. Haien artean Aitor Vacas, Sergio Uriarte, Nicolas Alonso hauek beste urteetako garaileak izandakoak eta baita Julen Urkizar taldekidea ere".

Erritmo azkarra ezarri zuten hasieratik eta lehen kilometroetan sortu zen ihesaldian sartzeko aukera izan zuen herritarrak: "Segituan lauko talde batean egin genuen ihes, lehen kilometroetan lurra bustita zegoen eta horrek ihesaldia erraztu zigun. Irungo aldapetan taldea hiru patinatzailera murriztu zen, eta bertatik metara elkarlanean joan ginen eskapadan erreleboak emanez. Ez nuen espero eskapada horren goiz sortuko zenik, baina aurkariekiko tarte bat ireki genuenean garbi genuen batera lan eginez gero iristeko aukerak izango genituela, eta hala izan zen".

Era horretara, Kursaal eta helmuga arteko zuzengunean erabaki zen guztia Villalobosek azaldu modura: "Kursaaletik aurrera Aitor Vacas Agorretarekin egindako esprint batean erabaki zen. Luze xamarra egin zitzaidan". Indarrak falta izan zitzaizkion Villalobosi arabarra gainditzeko (36.26); herritarra Vacasengandik segundo eskasera iritsi zen, 36.27.

Hala ere herritarra pozarren da lortutako bigarren postuarekin: "Azken urteetan podiumetik oso gertu ibili naiz eta aurten azkenean podiumera igotzea pozgarria izan da, eta modu batean, azken urteko arantzatxoa ateratzea, beraz harro egindakoarekin. Azken finean, etxe inguruan eta Euskadi mailan dagoen lasterketarik garrantzitsuena dela esan dezakegu".

Nesken mailan, Berezi Martinez de la Fuente Sagasti gasteiztarra izan zen lehen patinatzailea (44.08).

Korrikalariak

Korrikalarien probari dagokionez, Chakib Lachgar (01.02.19) eta Mireia Guarner Piquet (01.13.54) izan ziren garaileak.

Lasarte-Oriako parte hartzaileak 133 izan ziren. Jon Presa Herranz eta Julen Ormazabal Ortega korrikalarien artean lehiatu zuten lasarteoriatar azkarrenaren titulua. Bidea elkarrekin egin zuen bikoak eta Bulebarreko zuzenguneko azken metroetan Ormazabal (01.16.36) segundo batzuengatik aurreratu zitzaion Presari (01.16.39).

Emakumeen mailan, Maite Salazar Badiola izan zen herritarren artean lehena (01.31.01).

2024ko kirolari onenak proposatzeko epea ireki da

Kirol ibilbidea ere sarituko da. Hiru sarietarako hautagaiak aurkeztu daitezke, hilaren 28ra arte

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kirol Gala abenduaren 15ean egingo da Manuel Lekuona Kultur Etxean eta ekitaldian sarituak izango diren kirolariak hautatzeko prozesua martxan jarri du udalak. Herritar eta kirol elkarteek euren proposamenak bidali ahalko dituzte hilaren 14tik 28ra arte.

Hiru sailetara aurkeztu ahalko dira hautagaiak: 2024ko emakumezko kirolariari onena, 2024ko gizonezko kirolariari onena eta kirol ibilbideari saria. Hautagaiek 18 urte baino gehiago izan behar dituzte, Lasarte-Orian erroldatuak egon behar dira edo herriko elkarte batetako kide izan behar dute. Kirolari onenen kasuan, 2024. urtean zehar egin duten kirol jarduna kontuan izango da.

Hautagaitzak proposatzeko bi modu daude. Batetik etxeetara egun hauetan iritsiko den txartela bete eta udal instalakuntzetan dauden postontzietan utzi daiteke. Bestetik internet bidez, udaleko webgunean edo ekimeneko karteletan zein txarteletan dagoen QR bitartez eskuratu daitekeen PDF editagarria bete dezakete herritarrek.

2023 urteko sarituek, Erketzeko kideen agurra jaso zuten. TXINTXARRI

Herritarrek kategoria bakoitzeko ordezkari bat proposatu dezake, betiere, ongi justifikatua badago.

Bigarren fase batean, kirol elkarteek zein alderdi politikoek jasotako hautagaien artean puntukako bozka egingo dute; abenduaren 8an amaituko da epea. Eta azkenik, batzordean jakitera emango dira saridunak.

Udal ordezkariek herritarrak zein kirol elkarteak gonbidatzen dituzte prozesuan partea hartu eta euren hautagaiak bidaltzera.

BTT Lasarte-Oria 2025 probako izen ematea ireki dute

Saiatuz Klubak, MX Racing Klubarekin elkarlanean, antolatutako BTT Lasarte-Oria probako edizio berria 2025eko apirilaren 13an jokatuko da. Izen ematea martxan da probaren webgunean.

2025 urtean ere, zailtasun ezberdinetako hiru maila mantenduko ditu probak eta bai bizikleta tradizionalekin, bai *E-Bike*-ekin parte hartzeko aukera izango da.

Izena ematen duten pertsonek, gainera, probaren bereizgarri den Gobik maillot esklusibo bat jasoko dute eta lasterketa egunean zerbitzu guztiez gozatu ahalko dute.

Antolatzaileek plaza mugatuak direla gogoraratu eta inskripzioa azken egunera arte ez uzteko dei egin dute.

Intzako seniorrak, Ezker Hormako txapeldunorde

Ezker Hormako Nagusien 3. mailako finala jokatu du Intza KEko bikoteak Eibarko Astelenan. Eibar 2 bikoaren aurka neurti dituzte indarrak eta etxekoak izan dira garaile. Abendura arte, Neguko txapelketa jokatuko dute Intzako ordezkariek

Txintxarri

Ezker Hormako kluben arteko txapelketako finalak jokatu ziren hilaren 8tik 10era Gipuzkoako hainbat pilotalekutan. Hilaren 8an, ikuslez beteta zegoen Eibarko Astelena pilotalekuan jubenilen 1. mailako zein nagusien 3. mailako bikotekako neurketaz gozatu ahal izan zen. Intzako nagusiek Eibar 2 izan zuten aurkari eta etxekoek eraman zuten txapela.

Lehenik Jubenilen 1. mailako norgehiagoka izan zen. Jarraian, Nagusien 3. mailako partida lehiatu zen. Horretan Lasarte-Oriako Intza elkarteko Jon Pello Artetxe Mendizabal eta Peru Urdanpilleta Rodriguez kideek Eibar 2 bikoa (Ibon Ibarra Areta-Ander Agirresarobe Unamunzaga) izan zuen aurrez aurre. Nahiz eta Intzako kideek partida ona egin, ezin izan zuten garaikurra jaso.

Etxeko taldea sendo izan zen eta nagusitasunez garaipena erdietsi zuen, 22-4. Ibarra aurreladi gaztearen jarduna nabarmendu dute Intzako arduradunek: "18 urte dituen arren, ongi kudeatu zuen finala. Sakean min egin zuen eta jokoa ere ongi irakurtzen zuen. Atzean ere Agirresarobe fin ibili zen. Guk ongi jokatu arren, ez zen nahikoa izan".

Intzako kideak finalak jokatu zituzten gainerako pilotariekin sari banaketa ostean.

Txapelik ez, baina 2. mailako igoera eskuan Intzako kideak pozarren daude egindako txapelketarekin: "Igoera lortuta helburua betea genuen. Finala opari bat izan da".

Neguko txapelketa

Ezker Hormako txapelketa amaituta abendura bitartean Neguko txapelketa jokatuko dute Intzako ordezkariek. B multzoan Intxurre, Tartaloetxe, EPLE 1 eta Azkoitia Oteiza 2 izango dituzte aurkari herritarrek. Lehen jardunaldian atseden izango dute Lasarte-Oriako ordezkariek.

Buruntzaldea IKTko alebinak, ongi ligako lehen jardunaldian

Alebin ligari hasiera eman diote igerilariek Maialen Chourraut kiroldegian; guztiek euren markak ondu dituzte

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko alebinek Maialen Chourraut igerilekuan eman zioten ligari hasiera hilaren 9an.

Igeriketa taldeko zortzi kide izan ziren lehian –June Apeztegia, Izaro Bautista, Aiala Erro, Aitor Ormazabal eta Lier Garmendia 2012 urteko haurren mailan eta Kerman Miguel, Irai Jauregi eta Urko Azpiazu 2013 urtean jaiotakoen kategorian– eta guztiek euren markak ontzea lortu zuten.

Igerilari gazteek bi probetan egin zuten igeri: bular estiloko 100 metro proba eta estilo libreko 4x50 m. errelebo mistoa. Eta saioa hasi aurretik, berrikuntza modura, 1x25 m. krol hankak proba ere eraman zuten aurrera. Horretan generoak nahastuta egin zuten borroka eta taulaz lagunduta.

Igeriketa taldeko arduradunak pozarren daude lehen jardunaldian kirolari gazteek egindakoarekin: "Euren burua proban jartzeko parada ederra izan zuten denek eta, markak alde batera utzita, igeriketa teknikan eta taktikan lan egiteko aukera ona baliatu zuten".

Igerilariak, proba batean lehian. TXINTXARRI

Horrez gain, jardunaldian laguntzen izan ziren boluntarioei "eskerrik beroenak" eman nahi dizkiete Buruntzaldea IKTko arduradunek.

Hurrengo hitzorduak

Alebinek hurrengo hitzordua prestatzeko aukera izango dute; hilaren 23an, Ordizian jokatuko da bigarren saioa.

Baina aurretik, hilaren 16an, taldeko absolutu, junior eta infantilak izango dira lehian Hernanin; Neguko Liga jokatuko dute.

Eguzki ISU Leihoak taldeak, ezin garaipenaren bidean jarraitu

Hiru jardunaldi jarraian garaipena erdietsi ostean, Ekin Oria Futsal taldeak 2-6 gainditu du III.mailako taldea

Txintxarri

Eguzki ISU Leihoaken denboraldi hasiera ederrak etena izan du. III. mailan jokatutako lau jardunaldietatik hiruretan garaipena erdietsi du Lander Martin Llagunok zuzentzen duen taldeak, baina hilaren 9an, Maialen Chourraut kiroldegian, Ekin Oria Futsal taldeak 2-6 gainditu zuen talde hori-beltza.

Partida borrokatua izan zen lehen zatian. Bi taldeak paretsu aritu ziren erasoan, baina kontra batean aurkaria izan zen markagailua ireki zuena eta gutxira, huts baten ostean, bigarren gol bat ere egin zuen.

Etxezarreta, atera jaurtitzen. TXINTXARRI

Etxeko taldeak ez zuen amore eman, ordea; Unax Ruiz Francoren gol bati esker, 1 eta 2koa jarri zuen etxeko taldek eta ostean, berdintzeko aukerak ere izan zituen.

Eraso-kontraeraso joko horretan Eguzki ISUk beste bi akats izan eta ongi baliatu zituen Tolosako taldeak atsedenaldira 1 eta 4koarekin joateko.

Hala ere, etxeko jokalariak gogotsu atera ziren bigarren zatian eta Martin entrenatzailearen hitzetan, "ongi egin genion aurre aurkariari". Bizpahiru aukera sortu zituzten talde hori-beltzeko kideek bigarren gola egin baino lehen; korner batean Roke Etxezarreta Irazustaren eskutik eskuratu zuen etxeko taldeak.

Neurketa amaitzeko hamabost minutu faltan atezain jokalariarekin jokatzea erabaki zuen Martinek, baina ez zuen fruiturik jaso. Aurkariak, aldiz, beste bi gol egin zituen.

EUSKAL HERRIKO SURF FEDERAZIOA

Murgiondo, hirugarren

Euskal Herriko Surf txiki txapelketa lehiatu zen hilaren 9an, Sopelako hondartzan (Bizkaia). Hodei Murgiondo Hernandez herritarrak 14 urtez azpiko mailan parte hartu eta podiumera igo zen. Finalerdia gainditu eta hirugarren postuan sailkatu zen finalean; Martin Garcia Eceiza eta Lur Iglesias Landa gazteek gainditu zuten herritarra. Hilaren 16an, Surf Gazte zirkuituko probari egingo dio aurre La Arena, Zierbenan (Bizkaia).

KOMIKIA

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak, baita jaioberriak ere

Internet

· txintxarri.eus/zorionagurrak.
· Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
· Bidali zorion agurra formularioa betez.
· Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 15	DE MIGUEL
LARUNBATA, 16	KNIESE
IGANDEA, 17	KNIESE
ASTELEHENA, 18	GANDARIAS-URIBE
ASTEARTEA, 19	ORUE
ASTEAZKENA, 20	DE MIGUEL
OSTEGUNA, 21	LASA

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
KNIESE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00
Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK
· ERREGISTROA: 943-37 16 29
· EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
· KIROLDEGIA: 943-37 61 82
· MANUEL LEKUONA
· KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
· GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
· KIUB: 943-36 16 05
· UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
· MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK
· OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
· DYA: 943-46 46 22
· GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
· UDALTZAINAK: 943-36 24 42
· ERTZAINTZA: 943-53 88 40
· SOS DEIAK: 112

SUDOKUA

				7	2	4	8	
5			1			7		2
7	2		3					
3	5		6			8	4	
8	7	6	4		9		2	5
		1			8		6	7
	8		7	4		6		
4				6	3		7	8
6		7			5		1	4

Sudoku10.net

OHARRAK

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

ESKUTITZA

Eskutitzak argitaratu nahi dituzten herritarrek hiru modu dituzte testua bidaltzeko: bulegora etotzea (Geltoki kalea 4, behea), *txintxarri@ttakun.eus* helbide elektronikora edo WhatsApp bidez, 688 68 35 10 telefonora bidaltzea. Idatzia orri hauetan publikatua izan dadin, izen-abizenak zeintzuk diren zehaztu beharko dute.

Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

ESKELA

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI

Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo itxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN EMAN

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabiltza. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

ERRENTAN HARTU

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

LANA

ESKARIA

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

DESAGERPENA

Ipar Martxako makilak ostu dizkidate. Mesedez eskuratu nahiko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

EMAN

Pitbull arrazako txakurra oparitzen da. 9 urte ditu eta baserrian ohitua dago; oso ona da. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

MANTTANGORRI HIRIBUSA

Hiribusa



Eskola egunak

Antxisu	Olatxoaldea	Institutua	Antxisu
7:40	7:47	7:50	8:06

Lanegunak

Antxisu	Olatxoaldea	Zabaleta	Atsobakar	Antxisu
8:20	8:33	8:37	8:43	8:55
9:00	9:13	9:17	9:23	9:35
10:20	10:33	10:37	10:43	10:55
11:00	11:13	11:17	11:23	11:35
11:40	11:53	11:57	12:03	12:15
12:20	12:33	12:37	12:43	12:55
13:00	13:13	13:17	13:23	13:35
13:40	13:53	13:57	14:03	14:15
14:20	14:33	14:37	14:43	14:55
15:00	15:13	15:17	15:23	15:35
15:40	15:53	15:57	16:03	16:15
16:20	16:33	16:37	16:43	16:55
17:00	17:13	17:17	17:23	17:35
18:20	18:33	18:37	18:43	18:55
19:00	19:13	19:17	19:23	19:35
19:40	19:53	19:57	20:03	20:15
20:20	20:33	20:37	20:43	20:55

Larunbatak

txintxarri WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:
Xuban Urdalleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola, Iñigo Ibarburu eta Egoitz Epelde.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

TXINTXARRI-k ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 15

LASARTE-ORIA Aurkezpena
Eskualdeko aurkezpena egingo dute Jauzi Ekosoziala gizarte mugimenduaren nondik norakoak azaltzeko.
Antonio Mercero aretoa, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Emanaldia
Sasibill Lirika Elkarteak *La Revoltosa* zarzuelaren emanaldia egingo du. Sarrerek 14 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros ditzakete herritarrek.
Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 16

LASARTE-ORIA Azoka
Udalak eta Behemendi elkarteak X. Baserri Azoka egingo dute.
Okendo plaza, 09:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Ekimena
Valentziako kaltetuentzat materiala bidaltzen ari den boluntario taldeak txokolate jan solidarioa egingo du Donostiako Motard motorzale elkartearekin batera.
Antonio Mercero aretoa (sarrera), 10:00etatik 18:00etara.

LASARTE-ORIA Musika
Zero Sette Akordeoi Orkestrak Nazioarteko 21. Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du. Ludovic Beier eta Samuele Telari akordeoi jotzaileak gonbidatu dituzte aurtengo emanaldira. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:00etan.

IGANDEA 17

LASARTE-ORIA Zinema
Rescate en Africa filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
La gran escapada filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

LASARTE-ORIA Musika
Zero Sette Akordeoi Orkestrak Nazioarteko 21. Akordeoi Jaialdia aurrera eramango du kultur etxean: Ludovic Beier eta Samuele Telari akordeoi jotzaileak gonbidatuko ditu. Sarrerek 6 euro balio dute.
Bihar, hilak 16, kultur etxeko auditorioan, 19:00etan.

ASTEAZKENA 20

LASARTE-ORIA Literatura
Maria Garcia Ladero ipuin kontalariak 6 eta 8 urte arteko haurrentzako saioa aurrera eramango du. Izen ematea, Udal Liburutegian.
Udal Liburutegia, 17:30ean.

OSTEGUNA 21

LASARTE-ORIA Hitzaldia
Ahoztar Zelaieta ikerketa kazetariak *Diagnóstico de Tolosaldea. La privatización de la sanidad en el oasis vasco* liburua aurkeztuko du.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 19:00etan.

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA Gastronomia
Aterpea merkatarien elkarteak, udalarekin elkarlanean, X. Pintxo Bidea aurrera eramango du hilaren 22tik 24ra bitartean. Parte hartuko duten ostalaritza establezimenduetara joaten diren bezeroek jaki landu eta goxoak dastatzeko aukera izango dute, prezio onean.
Herrian barrena, egun osoan zehar, hilaren 22tik 24ra.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Zorretan antzezlanaren emanaldia egingo du Hika Antzerki Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA Solasaldia
Jose Manuel Bujanda donostiarra gonbidatuko du Oreki fundazioak, *Lo siento, confieso que he vivido (y me he solido equivocar)* hitzaldia ematera. Horren ostean Abend garagardotegian bertan bazkalduko dute bertaratutakoek. Izena emateko, *orekigintza@gmail.com* helbide elektronikora idatzi edo 747 41 74 76 telefono zenbakira deitu behar dutela ohartarazi dute antolatzaileek.
Ganbo Iturri elkartea, 10:30ean.

LASARTE-ORIA Literatura
Literatur lehiaketetan parte hartu dutenei sariak emango dizkie Lasarte-Oriako Udalak, ekitaldi baten bidez.
Kultur etxeko hitzaldi aretoa, 12:00etatik aurrera.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Una bofetada no es nada antzezlanaren emanaldia egingo dute. Sarrerak, 3 eurotan.
Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua
Psicoacustic taldeak The Beatles-en abesti ezagunez osatutako kontzertua emango du.
Jalgi kafe antzokia, 19:00etan.

IGANDEA 24

LASARTE-ORIA Zinema
Una familia monstruosa filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
La habitación de al lado filma emango dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros ditzakete lasarteoriatarrek.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEARTEA 26

LASARTE-ORIA Bertsolaritza
Bertso Astea hasiko da, bertso solasaldia jarduerarekin. Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek aholkuak (neurriak, errimak, bertsoen egitura, gorputzaren adierazpena, plazetan kantatzean nola jardun behar duten...) emango dizkiete modalitate horretan hasiberriak diren gazteei. Mailu Arrutik gidatuko du ekitaldia.
Osasun zentroko 2. solairua, 18:00etatik aurrera.

ASTEAZKENA 27

LASARTE-ORIA Literatura
Maria Garcia Ladero ipuin kontalariak 3 eta 5 urte arteko haurrentzako saioa aurrera eramango du. Izen ematea, Udal Liburutegian.
Udal Liburutegia, 17:30ean.

OSTEGUNA 28

LASARTE-ORIA Bertsolaritza
Bertso Astearen barruan bertso poteoa egingo du Earra! eskolak, trikitilariekin batera.
Erdigunea, 18:30ean hasita.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Mirari Martiarenak eta Idoia Torregaraik *Ztandap* antzezlanaren emanaldia egingo dute. Sarrerek 3 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Bertsolaritza
Bertso Astearen barruan I. Imanol Lizardi Sariketa egingo dute, 18 eta 25 urte arteko bertsolari gazteen artekoa. Sei ariko dira: Maddi Lasa eta Aratz Arzelus gipuzkoarrak, Iraide Onaindia eta Hegoi Amabizka arabarrak, Kelmene Abaitua bizkaitarra eta Kattalin Lizarraga nafarra. Lehen fasean sei horiek ariko dira nor baino nor gehiago eta bi sailkatuko dira buruz burukora; irabazleak 400 euro eta zapia jasoko ditu eta finalistak 200 euroko saria. Partaide guztiei oroigarri bana emango diete.
Mirentxu, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Okendo Zinema Taldeak hilabeteko bigarren emanaldia egingo du: Soy Nevenka filma proiektatuko du. Sarrerek 6 euro balio dute eta kultur etxeko leihatilan nahiz Kutxabank Sarrerak atari digitalean eros ditzakete lasarteoriatarrek.
Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 30

LASARTE-ORIA Jaialdia
Jalgune Elkarteak Larunbatak gogoko ditugulako jaialdia ospatuko du; hemezortzigarren aldia izango da, "goi mailakoa". Bertaratu nahi dutenek gonbidapenak eskuratu behar dituzte kultur etxeko leihatilan.
Kultur etxea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Gastronomia
Lasartearra elkarteak jakinarazi du barrikotea egingo duela eta "sagardo berria" dastatuko dutela, datorren denboraldikoa izango dena. Izena eman nahi dutenek elkartearen egoitzara joan behar dute hilaren 27a baino lehen eta buruko 30 euro ordaindu.
Lasartearraren egoitza (Erribera kalea, 10), 20:30etik aurrera.

ABENDUAK 1

LASARTE-ORIA Ospakizuna
Decebal elkarteak Errumaniaren Eguna ospatuko du herriko Gizarte-Etxea jatetxean. Jaioterriko platerez osatutako menua dastatu ostean kontzertua emango du Bogdy Stoika taldeak.
Gizarte-Etxea (Kale Nagusia, 15), 14:00etan hasita.

Ttakun Kultur Elkartearen aurreneko biltzarra. TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Ttakun Kultur Elkarteak 33 urte bete ditu

Hiru hamarkada pasatxo daramatza eragile horrek Lasarte-Orian euskara eta euskal kultura normalizatzeko lanean; zehazki, 1991ko azaroaren 16tik. Sortzaileek imajina zezaketena baino dimentsio askoz handiagoa du eta programa ugari kudeatzen ditu

Txintxarri

Euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa sustatzen leloa irakur dezake Ttakun Kultur Elkartearen webgunera (*ttakun.eus)* nabigatzera sartzen denak. 1991ko azaroaren 16an fundatu zuten eragileak zeregin horretan dihardu ordutik; konturatzerako, igaro dira ia-ia 33 urte (bihar bertan beteko ditu, hilaren 16an).

Aipatutako webgune hori izan da euskara elkarteak eman duen azken urratsetako bat, eta, horren aurretik, makina bat pauso eman ditu euskara eta euskal kultura Lasarte-Orian eta baita udalerritik kanpo ere errotzeko asmoz, sortzaileek imajina zezaketena baino dimentsio handiagoa lortuta: haur, nerabe eta helduentzako aisialdia euskaraz, udako txokoak eta kanpaldiak, Zerbitzuak, Eskola Kirola, TXINTXARRI aldizkaria... dira lantaldeak kudeatzen dituen programa aipagarri batzuk.

Geltoki kaleko 4. zenbakiko bulegoan gaude gaur egun, Jalgi Kafe Antzokiaren ondoan, baina ez da beti hala izan. Andrejoakinaenea haurren eskolako ganbaran egin zituen elkarteak lehen urratsak: urtebetez bildu ziren han, asteazkenero, eragile bat sortzea baitzen haien asmo eta ilusioa. Gorpuztea lortu zutenean, Pablo Mutiozabal kalera mugitu ziren, harik eta Lasarte-Oriako Udalak Erribera kaleko lokala utzi zien arte. Sei urtez jo eta ke aritu ziren lanean han eta 1998an etorri ziren gaur egungo egoitzara. Urte horretan bertan eskuratu eta ireki zuten Jalgi.

Horrez gain, Iñigo de Loiola kalean topagune bat du euskara elkarteak, Ttakunenea izenekoa. Euskaltzale direnentzako "arnasgune berri bat" izateko asmoz jaio zen 2016. urtean. Gaur egun, elkartearen beraren zenbait egitasmo han egiten dituzte eta elkarte gastronomikoa ere bada.

Bidelagun ugarirekin batera hazi da Ttakun: herritar, elkarte, ikastetxe, euskaltegi, alderdi politiko eta erakundeekin. Euskaltzale boluntarioek osatutako talde batek dinamizatu zuen elkartea hasieran; gaur egun, 440 bazkide inguru ditu eta lantalde profesional batek kudeatzen du eguneroko jarduna.